

Erredakzioa | DONOSTIA

Azken egunotan bezala, atzo ere erasoak izan ziren israeldarren eta palestinarren artean. Hala, ekintzaile palestinar batek hiru israeldar hil eta beste hamabi zauritu zituen Israel iparraldeko Afula hirian. Ekintzaile palestinarra ere hil zen, bertaratu ziren segurtasun indarrek hari tiro egin ostean.

Poliziak jakinarazi zuenez, ekintzaile palestinarra soldadu israeldarren arlopekin jantzita zegoen, eta Tel Avivetik Kiryat Shmona hirira zihoan autobusetik jaitsi eta autobus geltoki ondoko merkatuan zeuden lagunei tiro egiten hasi zen. Biktimetako bat han bertan hil zen, eta beste bi, ospitalean. Poliziaren arabera, baliteke ekintzailea PANen kontrolpean dagoen Jenin hirikoa izatea, eta beste pertsona baten laguntza izan ote zuen ikertzen ari da.

Bestalde, Israelgo Armadak bi palestinar hil zituen atzo Zisjordania eremuko Hebron hirian eta Belenen. Aurrenekoari Hebrongo erdiguneko kale batetik oinez zihoanean tiro egin zioten soldadu israeldarrek, Abraham Avinu kokagune juduko polizia postu batetik. Bigarrena, aldiz, Tanzim milizietako kidea zen, eta Belenen izandako leherketa baten ondorioz hil zen. Era berean, Israelgo Armadak beste sei palestinar zauritu zituen Hebron, eta palestinarrek autoan zihoan bikote israeldar bat zauritu zuten Ramot eta Frantziar Mendixka auzo-kokaguneen arteko errepidean.

Peresek eta Arafatek hitzarturiko su-etenaren kinka larrian

Shimon Peres Israelgo Gobernuko Atzerri ministroak eta Jasser Arafat PAN Palestinako Aginte Nazionalako lehendakariak irailaren 26an hitzartutako su-etenaren kinka larrian dago. Israeldarren eta palestinarren arteko erasoak ugaritu egin dira azken egunotan eta bi aldeek arteko errietak areagotu.

Ariel Sharon lehen ministroaren gobernuak PANen kontrolpean dauden eremuetan indarkeria amaitzeko ahaleginik ez egitea leporatu dio Arafati. PANeko lehendakariak, aldiz, Peresekin hitzartutako su-etenari etengabe eraso egitea egotzi dio Tel Aviveko gobernuari.

Bestalde, PANen kontrolpean dagoen Gaza iparraldean okupatutako zenbait posiziotan dago oraindik Israelgo Armada, astearthetik, Hamas erakunde islamistak Alei Sinai kokagune juduari eraso zionetik —bi israeldar hil ziren—. Bertako ordezkari militarrek ez dute zehaztu noiz arte geratuko diren.



LAURENT REBOURS / AP

ALEI SINAIKO TIROKETA. Argazkian, Alei Sinai kokagune juduaren aurkako tiroketan hil zen ekintzaile palestinarretako bat.

Palestinar batek hiru israeldar hil ditu Afula hiriko autobus geltokian

Israelgo Armadak palestinar gazte bat hil du Zisjordania eremuko Hebron hirian eta Tanzim milizietako kide bat Belenen

Ildo horretatik, Israelgo Defentsa ministro Binyamin Ben Eliezerrek Gaza iparraldeko kokaguneen inguruan ekintzak zabaltzeko baimena eman zion atzo Armadari. Horrela, tiro eremua zabaltzeko asmoz, nekazari palestinarren zuhaitzak moztu eta orubea berdintzeko baimena izango dute soldaduek.

Maruan Barguti Zisjordaniako Al Fata erakundeko idazkariak, aldiz, atzo azpimarratu zuen Israel 1967 aurretiko lefroetara itzultzea biltzen duen irtenbide politikoa lortu arte

OKUPAZIOA

Israelgo Armada herenegun Gazako iparraldean okupatutako eremuan dago oraindik

BILERA

Shimon Peres Palestinako Legebiltzarreko lehendakariarekin bildu da, su-etenaz hitz egiteko

ESTATU PALESTINARRAREN SORRERA

Liga Arabiarrek dio «prestatur» zegoela EEBBek babesa ematea

Hanan Axaui Liga Arabiarreko bozeramaileak atzo adierazi zuen EEBBek estatu palestinar bat sortzeko asmoari babesa ematea «aurretik prestatur» zegoela. «Bushen adierazpena orain dela asko zegoen prestatur, eta Jordaniak eta Egiptok arabiarren inguruan EEBBek duten iritzia aldatzeko eginiko lanaren fruitua zen», azpimarratu zuen Ashauik. Era berean, Liga Arabiarreko bozeramaileak EEBBetako Gobernuari dei egin zion «mundu arabiarrekin elkarriketa estrategiko bat hasteko, horrela Palestinako gatazka konpontzeko».

Axauik, halaber, Israelen politika salatzen zuen, eta Sharonen gobernuari exijitu zion «okupatutako eremuetako egoera benetan lasaitu nahi badu, palestinarrei erasotzeari eta probokatzeari uzteko». Haren aburuz, «Israelek ez du errespetatzen su-etenaren, eta EEBBen aurkako erasoez baliatzen da palestinarren aurkako erasoak areagotzeko». «Ez da bi armadaren arteko gerra, armada batek herri babesgabe baten aurka egiten duen gerra baizik», gaineratu zuen Axauik.



AP

PALESTINARRAREN ERASOA. Emakume bat, haur bat eskuetan duela, Ramot eta Frantziar Mendixka kokaguneetan izandako erasoaren ostean.

ezin dela su-etenik egon. Horren arabera, soldadu israeldarrek Gazatik, Zisjordaniatik eta Jerusalem ekialdetik erretiratu beharko lirarteke.

Ahmel Abdel Rahman PANeko idazkaria ere ildo horretatik mintzatu zen. Rahmanek adierazi zuen PANek ezingo duela indarkeria amaitu Israelgo Ar-

mada orain urte bat zegoen posizioetara erretiratzen ez bada.

Horrez gain, su-etenaren inguruan hitz egiteko eta eremuko indarkeria amaitzeko, Ahmed Kurea Palestinako Legebiltzarreko lehendakariarekin eta Saeb Erekat Gobernu Lokaleko ministroarekin bildu zen atzo Peres.